

Lizarra-Garazi: etorkizunerako apustua

Hamar urte asko dira, eternitate bat, batik bat politikan, eta Euskal Herrian gehiago. Hala ere, igarotako urte guzti hauetan zehar euskal politikan gertakizun asko – horietako batzuk, zalantzarik gabe, historikoak– izan badira ere, Lizarra-Garaziko Akordioak oinarritzat izan zituen printzipioek indarrean diraute oraindik eta arrasto egokiak ematen dizkigute epe hurbilera, eta behingoz, euskal gatazka politikoaren konponbideari arrakastaz heltzeko.

Indarkeria baztertu eta horren ordeztu gatazka euskal gizartearen erabaki demokratikoaren bidez, gehiengoaren borondatea errespetatuz, konpontzearen aldeko apustua izan zen Lizarra-Garaziko Adierazpena. Beste modu batean esanda, autodeterminazio eskubidearen aitortzaren bitartez.

Lizarra-Garazi inflexio puntua izan zen gure herriarentzat. Erabakitzeko eskubidea eztabaida politikoaren erdi-erdian jarri zuen eta hor darrai hamar urte igaro ondoren. Geroztik abiarazi diren bi ekimen politiko handiak, Estatutu Politiko Berria eta Herri Galdeketa, baita 2006ko martxoan ETAk iragarritako su-etenaren osteko negoziazio prozesua ere, printzipio demokratiko horretan oinarritu dira, autodeterminazioaren aldarrikapenean eta espainiar Estatuak euskal gizartearen erabakitzeko eskubidea onartzeko beharrean, alegia.

Lizarra-Garazik dena aldatu zuen. Handik aurrera ezinezkoa izango zen benetako eztabaidari ihes egitea, ordura arte PP eta PSOE egiten ari ziren bezala. Ezinezkoa izango zen euskal gatazka terrorismo arazo soil batera mugatzea. Eta, batez ere, euskaldun gehienek tesi hura bere egin zuten, gure etorkizunaz erabakitzea bakarrik guri dagokigula eta hori ETArekin jarduerarekin bateraezina dela. Lizarra-Garazin gatazka behin betiko konpontzera eramango gaituzten printzipioak zehaztu genituen. Eta horretan gaude oraindik orain, gizarteari hitza eman nahian, proiektu politiko guztiak, Eusko Alkartasunak aldarrikatzen duen independentzia barne, demokratikoki gauzatzea ahalbidetuko duen eszenatoki berri bat eraikitzeko.

Denbora inoiz ez da alferrik igarotzen, are gutxiago hamar urtetaz ari garenean, baina 1998an Lizarra-Garazin adosturiko printzipioek indar osoa dute oraindik gaur egun konponbiderako errezeta gisa: indarkeriaren behin betiko desagertzea, euskal gizartearen erabakia errespetatzea eta marko berri baterantz ezinbestean egin beharreko ibilbidearen abiapuntuak egun indarrean dagoen marko administratibo eta instituzionalaren aitortza izan behar duela onartzea.

Hamar urtek askorako ematen dute eta, oztopoak oztopo, aurrerapausoak eman ditugu norabide egokian. Gure erronka, eta horretarako lan egiten dugu Eusko Alkartasunak, printzipio horien aldeko gizartearen atxikimendua lortzea da, baita ahalik eta gehiengo politiko handienak sortzea ere Euskal Herriaren independentziaren aldeko urrats zehatz, tinko, eraginkor eta atzeraezinak eman ahal izateko, espainiar Gobernuaren edozein debeku edo betoren gainera.

Gure borondatea argia da, ez da zalantzarria. Herri bezala gure biziraupena bermatzea eta gure bizi-kalitatea progresiboki hobetzea posiblea izango da bakarrik egungo marko politikoa, agorturik dagoena, gainditzen baldin badugu eta beste eszenatoki baterantz baldin bagoaz, euskaldunok, mundu globalizatu batean dauden mugak aintzat hartuz, gure etorkizunaren jabe bakarrak izan gaitzen, gure ongizatea handitzeko eskura ditugun baliabide guztiak gure kasa erabil ditzagun.

PSOE eta PPren inobilismoari eta estuegi geratu zaigun marko estatutario baten inposaketari aurre eginez, eta beti indarkeria baztertuz, irteera euskal gizartearen gehiengoaren babesa izan behar duten alde bakarreko urratsak ematea da. Adostasunaren bidez egiten saiatu gara, eta hor daude Estatutu Politiko Berria eta Herri

Galdeketa, eta etorkizunean ere saiatu saiaturako gara, ate horrek beti irekita egon behar duelako, baina, egia esan, orain arte bakarrik ate-kolpeak jaso ditugu PSOE eta PPren aldetik.

PSOE eta PPren zerbitzura dagoen eta gure herriaren helburu zilegiak sistematikoki itotzen dituen legedi baten xedapenei *sine die* men egiteak instituzioak kudeatzeko sozialistekiko edo popularrekiko akordioak erraz ditzake eta botere kuota batzuei eusteko balio dezake ere bai, baina, benetan, Estatutua gainditzeari eta euskal gizartearen borondate demokratikoa erabat errespetatzea urrezko arautzat joko duen marko berri bat egituratzeari uko egitea da.

Ez Espainiari etengabe men egiteari, ez erantzun bortitzei; hain ezberdinak izan arren, bi estrategia hauek itsaso berean amaitzen dute: Euskadi eta Espainiaren artean indarrean dagoen harreman-sistema sendotu eta betikotu egiten dute. Eta sistema honek gutxiagotasun-maila batean kokatzen gaitu eta pixkanaka herri bezala desagertzera garamatza.

Gure herria bihurtu den labirinto politiko honetako irteera Lizarra-Garazi gidatu zuten printzipioen eguneratzean datza. Eusko Alkartasunak tinko eusten dio apustu hari, sinistuta baikaude bakarrik indar soberanisten (politikoak, sozialak, sindikalak...) bat egiteak, gehiengo sozialaren atxikimendu demokratikoak eta indarkeria erabiltzeari behin betiko uko egiteak ahalbidetuko dutela Estatuak ipin ditzakeen balizko oztupoak gainditzea eta dinamika itzulezinak abian jartzea, lehenik eta behin euskal gizartearen autodeterminazio eskubidearen aitortzarantz eta ondoren independentziantz.

Rafael Larreina

Eusko Alkartasunako Politika Instituzionaleko idazkaria

2008-9-12